



Mutrikuko Udala

ZORREN ORDAINKETA ATZERATU ETA ZATIKATZEARI BURUZKO ORDENANTZA

ATARIKOA

Mutrikuko Udalak, ordenantza honen bidez, atzerapenak eta zatikapenak ematea erregulatu nahi du, izaera orokorreko araudia Mutrikuko udalerriko errealitate sozial eta ekonomikoari egokitzeko; ildo horretan, Mutrikuko Udalak prozedura espezifikoak ezarri nahi ditu bere eremuko zerga zorrak ordaintzeko atzerapenak eta zatikapenak emateko, Tokiko Ogasunei buruz indarrean dagoen araudiak garatzen duen ordenantza hau onartuz.

1. artikulua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen 38/2006 Foru Dekretuaren 37.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ordainketa atzerapenaren eta zatikapenaren eskabideak Ordenantza honetan Mutrikuko Udalak onartutako xedapenen arabera izapidetu eta erabakiko dira. Hala izan ezean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru-bilketa Erregelamenduan ezarritako erregulazioa aplikatuko zaie era subsidiarioan.

2. artikulua.

Atzeratzea edo zatikatzea eskatuko da ordaintzeko obligazioa duenaren diruzaintzako egoerarengatik unean bertan ordaintzea ezinezkoa bada.

3. artikulua.

Atzeratu edo zatikatze eskabidea ordaintzeko obligazioa duenak egin behar du, hartarako udalak egokitutako inprimaki batean, eta, hala badagokio, ekonomia eta finantza egoera zein den jakiteko behar diren agiriak ekarrita.

4. artikulua.

Zatikatu beharreko zorraren zenbatekoan sartuko da ordaindu gabe dagoen zor guztia, eskatzaileak izan dezakeen aurreko zorra barne.

5. artikulua.

Zatikaturako zorraren hileko ordainketak egiteaz arduratuko da zergaduna.

6. artikulua.

Atzerapenak eta zatikapenak emateko irizpide orokorrak hauek izango dira:

- a) Ez da emango aukerarik zorrak atzeratu edo zatikatze, zorraren zenbatekoa 200 euro baino txikiagoa bada, kasu berezietan izan ezik, eta halakoetan frogatu egin beharko da, agiri bidez, ezinezkoa dela ordaintetari aurre egitea.
- b) Zorraren zenbatekoa 200 eta 400 euro artekoa denean zorra gehienez ere 3 hilabeteko epean zatikatu daiteke.
- c) Zorraren zenbatekoa 400 eta 3.000 euro artekoa denean zorra gehienez ere 12 hilabeteko epean zatikatu daiteke.



Mutrikuko Udala

d) Ez da emango atzeratzeko aukerarik, kasu berezietan izan ezik, aurretik zorraren %10 ordaindu gabe eta gehienez ere 3 hileko epean.

7. artikulua.

Aurreko atalean jasotako irizpideak betetzen dituzten zatikapen eskabideak Alkateak erabakiko ditu.

8. artikulua.

6. atalean jasotakoak ez diren zatikapen eskabideak eta atzerapen eskabideak Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko ditu, Tributuen 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru-bilketaren Erregelamendua onartzen uden 38/2006 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, Ogasun Batzordearen irizpena izan eta gero.

9. artikulua.

Bermeak:

- 6. atalean jasotzen diren zorren zatikapenak eta atzerapenak salbuetsita daude bermeak aurkeztetik.
- Aurreko atalean jasotakoak ez diren zatikapen eskabideak 2/2005 Tributuen Foru Arau Orokorrearen 79. artikuluan aurreikusitako moduan bermatu beharko dira.
- Prozedura exekutiboan nahikoa balio duten ondasunen erregistro publikoan enbargatzeko idaztohar prebentiboa egin denean zorra bermatutzat joko da, eta ez da berme berririk behar izango.

Espedientean jasotako eta zatikapen eskabideari erantsitako dokumentazioaren arabera, alkateak berme nahikoa emateko obligazioa barkatu dezake, bereziki obligazioa duenak zorra bermatzeko nahikoa ondasun ez duenean, eta bere ondasunen exekuzioak jarduera ekonomikoaren produkzio gaitasunari eta enplegu mailari neurri handian erasan diezaiokenean.

10. artikulua.

Berandutzako interesak:

- 6. atalean jasotzen diren zorren zatikapenak eta atzerapenak salbuetsita daude berandutzako interesak ordaintzetik.
 - Aurreko atalean jasotakoak ez diren zatikapen eskabideek 2/2005 Tributuen Foru Arau Orokorrearen 26. artikuluan aipatzen den berandutzako interesa sortuko dute.
- Kasu bereziak daudenean, espedientean dagoen dokumentazioaren eta zatikapen eskabideari erantsitako dokumentazioaren arabera, alkateak berandutzako interesak ordaintzeko obligazioa barkatu dezake.

11. artikulua.

Borondatezko aldiak eskatu diren zatikapenen 2 epe aldi hori amaitu ondoren ordaindu ez badira, mugaeguneratutzat joko dira ordaindu gabe dauden zatikapen guztiak, eta exekuzio aldia hasiko da. Beste tramiterik egin gabe, ordaindu ez den zorra dela-eta premiamenduzko probidentzia egingo da.



Mutrikuko Udala

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indar gabe uzten dira Ordenantza honetako manuzko aginduen kontra doazen edo kontraesanean dauden udal xedapenak.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Ordenantza hau indarrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera